

HAUR HEZKUNTZA GRADUA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia
Fakultatea



II MODULOA ESKOLA ETA CURRICULUMA


2021/22 ikasturtea

AURKIBIDEA

	ORR.
1. SARRERA	3
2. KONPENTENTZIAK	4
2.1. Graduako konpetentziak	4
2.2. Lan modularreko konpetentziak	4
3. TALDEAREN EGITURA	5
4. LANAREN EGITURA	5
4.1. "A" EGOERAREN EZAUGARRI OROKORRAK	5
4.1.1. "A" Egoerako txosten idatziaren gidoia	6
4.1.2. "A" Egoeraren ahozko aurkezpenaz	7
4.2. "B" EGOERAREN EZAUGARRI OROKORRAK	8
4.2.1. "B" Egoerako txosten idatziaren gidoia	8
4.2.2. "B" Egoeraren ahozko aurkezpenaz	9
5. LANAREN KRONOGRAMA	10
6. EBALUAZIOA	11
7. ERANSKINAK	12

1.- SARRERA

Haur Hezkuntza graduko 1.mailako diziplinar-teko bigarren modulua egiteko gida duzu esku artean. Bigarren honetan ere zenbait irakasgairen irakasleok ahaleginak egin ditugu, nor bere arlotik baina lan modular baten bidez, konpetentzia batzuk lortze aldera: interdiziplinaritatea curriculum arloetan, talde lana eta lan autonomoa, komunikatzeko gaitasuna... Hau guztia xede dugula, *Didaktika Orokorra*, *Hezkuntzaren Psikologia*, *Garapen Psikomotorra I*, *Artes plásticas y cultura visual en la educación infantil I* eta *Desarrollo de la expresión musical I* irakasgairen irakasleok teoria eta praktika lotzen dituen lan bat egitea erabaki dugu.



MODULUKO IRAKASLEAK

Didaktika Orokorra: Iñaki Escudero

Garapen Psikomotorra I: Iraitz Lizarraga

Hezkuntzaren Psikologia: Pilar Gil (koordinatzailea)

Artes plásticas y cultura visual en la educación infantil I: Javi Cruz

Desarrollo de la Expresión Musical I: Maribi Urruzola eta Lurdes Sagarzazu

2.- KOMPETENTZIAK

2.1 GRADUKO KOMPETENTZIAK.

Taula 1. *Graduko kompetentziak.*

Zenbakia	Kompetentzia
G001 Diziplinartekotasuna curriculum arloetan	Haur Hezkuntzaren helburuak, curriculum-edukiak eta ebaluaketa-irizpideak ezagutzea, horien berezitasun epistemologikoa eta horien didaktikaren berariazkotasuna ulertuz, baita diziplinen arteko harremana ere, neska-mutilen lana prestatzeko, antolatzeko eta ebaluatzeko.
G008 Haurtzaroan garapena sustatzea	Haurren dietetika eta higieneari buruzko oinarriak ezagutzea. Neska-mutikoek beren gorputza ezagutu eta kontrolatu dezatela sustatzea, autonomia-ohiturak bultzatuz. Arreta goiztiarraren oinarriak ezagutzea, eta halaber, prozesu psikologikoak, ikaskuntzakoak eta lehen haurtzaroan nortasuna eraikitzeakoak ulertzea ahalbidetzen duten oinarriak eta garapenak ezagutzea, horiek garatu daitezela sustatuz.
G011 Lan autonomoa eta talde lana	Maila honetako irakasle guztiekin jarduerak elkarlanean planifikatzea. Irakaskuntza-lana eta jarduera profesionala berritzeko eta hobetzeko ikasgelan egiten diren praktiken inguruan taldean gogoeta egitea. Ikaskuntza autonomorako eta lankidetzazkorako ohiturak eta trebetasunak eskuratzea eta ikasleen artean hori sustatzea.
G012 Hezkuntzan esku hartzeko diseinua	Haur-hezkuntzako ikastetxeei eta bertako profesionali eragiten dieten oinarriko kompetentziak eta egungo gizartean hezkuntzak betetzen duen eginkizuna eta dituen aukerak eta mugak ulertzea. Oro har, hezkuntza-prozesuen konplexutasuna eta, bereziki, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuena ulertzea, eta curriculum-elementu berriak barneratzea jarrera kritiko eta ekintzaile bat egin ahal izateko, pertsonen, antolamenduen eta gizartearen premia eta eskaerei erantzun eman ahal izango diena. Kalitatea hobetzearren hezkuntza-zentroetan aplikatu daitezkeen ereduak ezagutzea.
G015 Adierazpena eta komunikazioa	Komunikazio-kompetentziak aberasteko helburua duten estrategia didaktikoak diseinatzea (ahozkoak, idatzizkoak, ikusmenekoak, gorputzekoak, afektiboak eta musikalak) garapen integral baten testuinguruan.

2.2. LAN MODULARREKO KOMPETENTZIAK

Taula 2. *Lan modularreko kompetentziak.*

E01	Lan modularreko irakasgaien edukiak identifikatzea, haur hezkuntzako ikastetxeko hainbat denbora tartetan behaketaren bitartez jasotako informazioaz baliatuz.
E02	Lan modularreko irakasgaien arteko erlazioak eta teoria zein haur hezkuntzako errealitatearen artekoak aztertzea identifikatu dituzten edukietatik abiatuz.
E03	Haur eskolako geletan behatutakoan oinarrituz talde eztabaida sustatzea kideen parte-hartzearen bitartez.
E04	Bildu eta jorratutako informazio esanguratsuena idatziz eta ahoz komunikatzea alde zuzenetik emandako irizpideak jarraituz.

3. TALDEAREN EGITURA

Ikasleok nahi bezala eratuko dituzue taldeak, beti ere segidan aipatzen ditugun baldintzak kontuan hartuta:

- ❖ Taldekideen kopurua 4 lagunekoa izango da. (Arrazoiak argudiatuz gero, 3 edo 5 izan daitezke.)
- ❖ Talde bakoitzean, gutxienez, ikasle bat *Garapen Psikomotorra I* ikasgaia baliokidetu gabe izatea. (Salbuespena: bost ikaslez osatutako taldea baldin bada, gutxienez bi ikasle izan beharko liratekeela *Garapen Psikomotorra I* ikasgaia dutenak).
- ❖ Taldeak Otsailaren 3rako osatuta egon beharko dira, eta aurkeztu beharreko fitxa egelan eskegita duzue.
- ❖ Otsailaren 10era arte izango dute taldeek aldaketak egin ahal izateko epea. Hortik aurrera taldeak egonkorak izango dira eta hartutako konpromisoari ezingo zaio uko egin.

4. LANAREN EGITURA

Gaur egun bizi dugun egoera ikusirik eta egoerak berak sortutako ziurgabetasuna kontutan izanik, lan modular hau egiteko bi egoera desberdin prestatu ditugu. Lehenengo egoerari **A** egoera deituko diogu eta bertan baldintza batzuen arabera egin beharko da lana. Bigarren egoerari **B** deituko duguna, baldintza horiek bete ezingo balira prestatu dugun aukerari heldu beharko genioke lan modularrarekin aurrera jo ahal izateko. Ondorengo ataletan bi egoera hauen azalpenak topatuko dituzue.

4.1. "A" EGOERA EZAUGARRI OROKORRAK

Lanaren abiapuntua ikastetxe batera egingo den bisita izango da. Horretarako, Otsailaren 21etik 25era arte duzue, ikasle talde bakoitza ikastetxe batera joan, eta baimena lortu ondoren, moduluko irakasgaiekin erlazionatzen diren denbora tarteak behatu eta aztertzeke.

Lan modularrean parte hartzen dituzten irakasgai guztiekin harremana dituzten alderdiak behatze aldera, bat baino gehiago izan daitezke ikastetxeetara egiten diren bisitak; betiere, kontaktua egin den maisu edo maistren oniritzia ezinbestekoa izanda bisita kopurua adosteko garaian.

Halaber, oso jakitun gara COVID-19ak ikastetxeetan sortu dituen kezka eta arazoak, ondorioz hori guztia modu osasuntsu eta seguruan antolatzeke eman dituen lanak. Hori dela eta, ikastetxeetako dinamikak gure presentziarekin gehiegi ez oztopatzea oso garrantzitsua dela uste dugu eta beraz, bi kidez osatutako bisitak burutu daitezke behaketa bakoitzean, gehienez. Ikastetxeak

indarrean izan ditzaketen protokoloak (COVID-19) ezagutu eta errespetatu beharko ditugu bertako langile eta haurren osasuna arriskuan ez jartzearren.

Behaketa tartetean, moduluko irakasgai bateko ezagutza arloarekin erlazioa izan ditzaketen alderdiak behar bezala jaso ez direla susmatuz gero, ikastetxeko maisu edo maistrei egindako elkarrizketen bitartez osatu daiteke informazio bilketa hori. Egoeraren arabera elkarrizketa hori bertaratuz edo modu telematikoan egin daiteke.

Talde guztiek **Martxoaren 2rako** lanaren zirriborroa prest izango dute eta **Martxoaren 4ra** arte arlo zehatzen inguruko zalantzak argitzeko arlo horretako irakaslearengana joan ahal izango dira (Feedback astea). Hortik aurrera talde guztiak, irakasle bakoitzaren irizpideei jarraituz, lana osatzen joango dira.

Txosten idatzia **Martxoaren 31rako beranduenez** irakasleen esku egon behar du eta ahozko aurkezpenerako gidoi-zirriborroa **Apirilaren 13rako**. Aurkezpenak **Maiatzaren 2tik Maiatzaren 6ra** izango dira (aurrez egutegi zehatz bat finkatuko da).

4.1.1. "A" EGOERAKO TXOSTEN IDATZIAREN GIDOIA

Lan idatziaren egitura orientagarria honako hau izan daiteke:

1. Azala (ikusitako ereduak).
2. Aurkibide zenbakitua.
3. Sarrera. (Honakoak izan ditzakezue gogoan: ikastetxearen xehetasunak - publikoa/kontzertatua, kokapena, tamaina ... - eta ikastaldearen ezaugarriak -adina, kopurua, besteak beste-).
4. Behatutako tarteen deskribapena.
5. Behatutako tarteen analisia. (Lan modularrean parte hartzen duten irakasgaiekin ikuspegitik: Non eta nola agertzen dira irakasgaien edukiak? Nola uztartzen dira? Zer ondorio ateratzen dituzue honetaz?...)
6. Lanaren balorazio orokorra (Zer ikasi duzue? Zer kostatu zaizue gehien? Nola hobetu liteke lanaren proposamena?...)
7. Bibliografia (internetekoa barne)
8. Eranskinak (argazkiak, bideo-klipak,...)

Lanak gutxienez 12 eta gehienez 15 orrialdeko luzera izango du (eranskinik gabe), Times New Roman hizki-motan, 12 neurrikoa eta 1,5 tartekoa. Lana PDF bakar batean horretarako eGelan sortutako zereginean igo beharko da. Eranskinak printzipioz dokumentu berean jarri beharko lirateke, dena den, eranskinak pisu gehiegi hartuko balute dokumentu bakarrean igotzeko, aparteko esteka batean partekatu beharko duzue irakasleekin DRIVE, WETRANSFER edo antzeko baliabideren baten bidez.

4.1.2 "A" EGOERAN AHOZKO AURKEZPENAZ

Ahozko aurkezpena maiz lan idatziaren irakurketa huts bihurtzen da. Holakorik gerta ez dadin oso kontuan hartzeko irizpide batzuk ematen ditugu segidan:

1. Txosten idatziak eskuragarri egongo dira edozeinentzat. Hartara aurkezpenean lanaren alderdi garrantzitsuenak baino ez dira azalduko eta, noski, ezingo da irakurri.
2. Txosten idatzia entregatzen den egunerako ahozko aurkezpenaren justifikazioa aurkeztu beharko da, bertan azalduz, aurkezpen horren abiapuntu izan daitekeen errealitatea, aurkezpen horretarako zein helburu pentsatu diren eta zein jarduera prestatu diren. Kontutan izan behar dugu osasun irizpideen arabera baldintzak aldatu daitezkeela eta beraz prestatzen dena moldagarria izan beharko dela ezinbestean.
3. Ahozko aurkezpenaren justifikazioa egiteko aurkeztu beharreko txostenaren egitura honakoa izan daiteke (proposamena da, ez da ezin bestean hau izan behar):
 - a. Zentroa.
 - b. Errealitatearekiko lotura.
 - c. Dinamika hausnarketa bultzatzeko zehazten duen jardueraren deskribapena.
4. Lanaren hasierako aurkezpenak 10 minutu iraungo du (ez da inolaz ere denbora tarte hori baino gehiago luzatuko). Taldekide guztiok parte hartu behar duzue eta interbentzio denbora berdintsua izango duzue. Ikus-entzunezko baliabideek lagundu dezakete aurkezpena interesgarri eta atseginago egiten, eta horien erabilpen egokia ere baloratuko da. Halaber, hizkuntzaren aberastasuna zein zuzentasuna kontuan hartuko dira (ikus errubrika).
5. Ahozko aurkezpenak gelakideen gogoeta bultzatzea du helburu nagusia. Hori dela eta, aurkezpena eta gero hausnarketa hori bultzatuko duen dinamika aurkeztu eta egin beharko da (gutxienez 20 eta gehienez 35 minutu). Aurkezleek teknika desberdinak erabili ditzakete, kideen artean parte-hartzea eta gogoeta sustatzeko. Hau guztia osasun eta higiene baldintzek horretarako aukera ematen badute egingo da. Gainera baldintza horiek aldatuko balira "B" egoerako aurkezpen motari heldu beharko genioke, horrela bada aldez aurretik jakinaraziko zaizue.
6. Guztira talde bakoitzak 45 minutuko saioa izango du bere lana aurkeztu eta horren inguruko hausnarketa konpartitua egiteko.
7. Aurkezpenak GA1 eta GA2 taldeen arabera antolatuko dira (osasun eta higiene irizpideek horretarako aukera ematen badute), eta taldekide GUZTIAK aurkezpen GUZTIETAN egon beharko dute (saioetan zerrenda pasatuko da). Entzulegoak aurkezten duen taldearen dinamikan parte hartu beharko du, eta hori ere baloratuko da.

4.2. "B" EGOERAREN EZAUGARRI OROKORRAK

"A" egoeran azaldutako guztia egin beharko litzateke egoera orokorrak baimenduko balu. COVID-19aren ondorioz ezin baldin bada aurrez aurreko behaketa egin, ondoren adierazitako plangintza jarraitu beharko da.

Egoera honetan lan modularrean aztertu beharko genuke COVID-19ak ikastetxeetan sortutako egoeren errealitatea nolakoa den. Jaso beharko litzateke orokorki ikastetxean eragin dituen aldaketak batetik eta bestalde arlo bakoitzean aldaketa horiek nola gauzatu diren irakasgai bakoitzak sortutako gida jarraituz.

Behaketa errealitatea aztertu ahal izateko egin ezin denez, bere orde irakasle tutorearekin elkarrizketa bidez lortu beharko genuke informazioa. Elkarrizketa hau aurrez prestatu beharko litzateke irakasgai bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuz.

Talde bakoitzak elkarrizketa bat prestatuko du eta elkarrizketa gauzatu beharko du aurrez aurre edo bideo konferentzia bidez Otsailak 21-25eko aste horretan.

Laburtuz honako hauek izan daitezke jorratu beharreko pausuak:

1. Eskolarekin kontaktuan jarri eta elkarrizketak adostu.
2. Aukeratutako eskolak duen web orria arakatu.
3. Galdetegia prestatu: batetik modulu honetan lantzen diren konpetentziak kontutan hartuz eta bestetik moduluko irakasgai bakoitzak behaketarako interes guneak azaltzen duten txantiloietan oinarritu.
4. Elkarrizketa egin.
5. Elkarrizketaren datuak erregistratu.
6. Datuak analizatu.
7. Txosten idatzia burutu.

4.2.1. "B" EGOERAKO TXOSTEN IDATZIAREN GIDOIA

1. Azala
2. Aurkibidea
3. Sarrera
4. Eskolaren egoerak: Normalizatua/Covid19 garaia/
5. Nola hobetu liteke,; Eskolaren egoera ideal baterako proposatzen diren hobekuntzak.
6. Lanaren balorazio orokorra
7. Bibliografia

Lanak gutxienez 12 eta gehienez 15 orrialdeko luzera izango du (eranskinik gabe), Times New Roman hizki-motan, 12 neurrikoa eta 1,5 tartekoa. Lana PDF bakar batean horretarako eGelan sortutako zereginean igo beharko da. Eranskinak printzipioz dokumentu berean jarri beharko lirateke, dena den, eranskinak pisu gehiegi hartuko balute dokumentu bakarrean igotzeko, aparteko esteka batean partekatu beharko duzue irakasleekin DRIVE, WETRANSFER edo antzeko baliabideren baten bidez.

4.2.2. "B" EGOERAREN AHOZKO AURKEZPENAZ

"B" egoera honetan aurkezpenak aurrez aurrekoak izan ordez birtualak izango dira ezinbestean.

1. Horretarako Webex-en antolatuko dugu saio bat talde bakoitzak aurkezpena egin dezan.
2. Aurkezpenak iraupen mugatu bat izan beharko du eta burutzeko irizpideak moduluaren gidaren errubrikan dituzue, hau da, aurrez aurre egiterakoan jarraitu beharreko berdinak lirateke..
3. Taldekide guztiek parte hartu beharko dute, bakoitza dagoen lekutik aurkeztuz dagokion zatia.
4. Aurkezpen honetarako baliabide gisa hainbat tresna erabili daitezke, bai bideoak sortuz, Powerpointak prestatuz, eta abar.
5. Bideoa erabili nahi izanez gero, egiteko teknikoki aukera desberdinak daude. Ez dugu aurrebaldintzarik jarriko eta beraz, erabiliko den programa (SKYPE, HANGOUTS, eta abar izan daitezke) eta prozesua talde bakoitzaren eskutan uzten da. Hala ere, honekin batera edonorentzako erabilgarria den bideoa egiteko tutorial bat txertatuta izango duzue eGelan (SCREEN O MATIC, MOVIE MAKER).
6. Entzuleen parte hartzea sustatzeko proposamenen bat egitea hobetsiko da eta beraz aurrez proposamena aurkeztu beharko da bideragarri egin ahal izateko.
7. "B" egoera honetan ere egutegia berbera mantentzen da, hau da: txosten idatzia **Martxoaren 31rako beranduenez** eta ahozko aurkezpen birtualerako gidoi-zirriborroa **Apirilaren 13rako**, eta ahozko -aurkezpenak **Maiatzaren 2tik 6ra egingo dira** (aurrez egutegi zehatz bat finkatuko da).

5. LANAREN KRONOGRAMA

Lan modularra egiteko irakasgaietako saioak ere erabiliko dira. Hala ere, gogoratu beharreko datak honako hauek dira:

URTARRILA 2022

24	25	26	27	28
31				

Urtarrilak 24: bigarren lauhilekoaren hasiera.
Urtarrilak 27: lanaren aurkezpena.

OTSAILA 2022

	1	2	3	4
7	8	9	10	11
14	15	16	17	18
21	22	23	24	25
28				

Otsailak 3: taldeak osatzeko eta taldearen fitxa eGelan eskegitzeko azken eguna.
Otsailak 10: taldeetan aldaketak egiteko epearen amaiera.
Otsailak 21-25: ikastetxeetara joateko egunak.
Otsailak 28: ez dago klaserik.

MARTXOA 2022

	1	2	3	4
7	8	9	10	11
14	15	16	17	18
21	22	23	24	25
28	29	30	31	

Martxoak 1: ez dago klaserik.
Martxoak 2-4: "feed-back" astea.
Martxoak 31: txosten idatzia entregatzeko azken eguna.

APIRILA 2022

				1
4	5	6	7	8
11	12	13	14	15
18	19	20	21	22
25	26	27	28	29

Apirilak 6: ahozko aurkezpenaren inguruko azalpena.
Apirilak 13: ahozko aurkezpenaren eskema entregatzeko azken eguna.
Apirilak 14-22: ez dago klaserik.

MAIATZA 2022

2	3	4	5	6
9	10	11	12	13

Maiatzak 2-6: ahozko aurkezpenak.
Maiatzak 13: bigarren lauhilekoaren bukaera.

6. EBALUAZIOA

Ebaluazioak bi atal izango ditu: txosten idatzia eta ahozko aurkezpena, eta biak ala biak gaingitu behar dira. Lan honek irakasgai bakoitzaren arabera balio berdina jasoko du (Ikusi Taula 3) eta beraz irakasgai eta irakasle bakoitzaren ardura eta parte hartzea prozesu osoan zehar orekatua eta berdina izango da. Lana ebaluatu ahal izateko ikasleen asistentzia %80koa izango da, gutxienez. Hortaz, asistentzia neurtu egingo da.



Txosten idatzia irakasle-taldeak baloratuko du. Ahozko aurkezpena 2 irakaslez osaturiko epaimahai batek baloratuko du eta ikaskideek ere parte hartuko dute ebaluazioan, ekarpen formatiboen bidez: galdera-iruzkinak eginez, zer dagoen ondo-zer hobetu adieraziz, nahiz eta ikaskideen ebaluazio honek notan eraginik ez duen izango.

Taula 3. *Irakasgai bakoitzak lan modularri esleitutako kredituak(1) eta balioa.*

	Kredituak (1)	Puntuazioa
<i>Didaktika Orokorra</i>	0,9 Kreditu	1,5 puntu
<i>Garapen Psikomotorra I</i>	0,9 Kreditu	1,5 puntu
<i>Hezkuntzaren Psikologia</i>	0,9 Kreditu	1,5 puntu
<i>Artes plásticas y cultura visual en la educación infantil I</i>	0,9 Kreditu	1,5 puntu
<i>Desarrollo de la Expresión Musical I</i>	0,9 Kreditu	1,5 puntu

(1) Kreditu ECTS bakoitzeko 10 ordu aurrez aurrekoak eta 15 ez aurrez aurrekoak dira.

7. ERANSKINAK (EBALUAZIO IRIZPIDEAK)

1.ERANSKINA: LANAREN EBALUAKETA ORRIA

Orain arte ebaluazioaren inguruan esandakoa (ikus. 3 eta 4.2 atalak) biltzeko asmoz, ondoko taula sortu dugu.

EBALUAZIOA

TALDEA: _____

Ahozko aurkezpena

IRIZPIDEAK	Ebaluatzailearen oharrak	NOTA
Aurkezpenaren edukia: <ul style="list-style-type: none"> - Gaiaren garrantzia - Informazioaren egokitasuna - Ideien koherentzia eta lotura - Irakasgaien arteko lotura 		
Aurkezpenaren formatua: <ul style="list-style-type: none"> - Diseinua - Originaltasuna - Erabilitako baliabideak 		
Komunikatzeko gaitasuna: <ul style="list-style-type: none"> - Ahotsaren bolumena - Gorputzezko adierazpena - Abiadura - Hizlarien arteko loturak 		
Hizkuntza		
Eztabaida: <ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpenarekin lotura - Parte-hartzea bultzatzea. - Moderatzeko gaitasuna 		
OROTARA		

Idatzizko txostena

IRIZPIDEAK	Ebaluatzailearen oharrak	NOTA
Nahikotasuna: Lanaren hedadura gidan emandakoa den		
Balioetasuna: edukia gaiari lotzen zaion		
Koherentzia: Atalez atal, kontraesanik gabe osatua dagoen		
Oreka: bost diziplinei antzeko tartea eman zaien		
Egitura: Idazlana gidan emandako egiturara hurbiltzen den		
OROTARA		

MODULUAREN AZKEN NOTA, (ahozkoa + idatzia), OSOA:

2. ERANSKINA: MODULUAREN EBALUAKETA ORRIA IKASLEENTZAT

- 1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue? (ikasleei idatziz eman moduluko konpetentziak horien lorpen maila ebaluatu dezaten)
- 2) Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
- 3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue ...).
- 4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute ...).
- 5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?